

ttipi ttapa

2002ko abenduaren 19a • XXII. urtea



**Bidelagun-eko
Isidro Herguedas**

03

Bertze kulturetako jendea gurean hobeki integratzeko ekimen ezberdinak egiten ari dira Bidelagun elkartekoak. Isidro Herguedasekin izan gara solasean.



**Koteto Ezkurak
zazpigarrena**

25

Bingo Londres erremonteko banakako txapelketan zortzi final jokatu ditu doneztebarrak eta zazpigarrena irabazi zuen abenduaren 7an Galarretan.



04

**Igantzikoko saskigileak:
Galtzen ari den lantegia**

MUEBLES AMETS

Iarunbat
arratsaldetan
irekia


4000 m² erakusketa

BISITATU GURE
WEB ORRIA
www.mueblesamets.com



Sukaldeak, Egongelak, Logelak, Bainugelak

AUKERA HANDIAK



Larruzko besaulkiak

Sarrera BERAtik da *Sastrin karrika, 3.2 - 3.4 Alkaiaga*
31789 LESAKA *Tfnoa. 948 630 537 Fax. 948 631 443*

ZURE IBILGAILUA NEGURAKO PRESTATU



Banarta, 2 • Alkaiaga industrialdea • LESAKA • Sarrera Beratik • 948 625 555



Auto marka guzien konponketa • Seat, Audi, Volkswagen markatan espezializatuak •
Txapa, pintura, mekanika eta elektrizitatea • Pre-ITV • Direkzio zuzentzeak eta orekatzeak

DATUAK...

- Isidro Herguedas Sukia da Bidelagun Boluntariora Elkarte koordinatoratzailea.
- Bidelagun elkarteak koordinatuko du Baztanen abiatu berri den Kultur Aniztasunaren Aldeko Plataforma.
- Inguruotan lehenbizikoa den Kultur Aniztasunaren Aldeko Plataforma honetan, Baztango eskolak, sindikatuak, Osasun Etxea, emakume taldeak eta udal zerbitzuak (Kultura eta Gizarte Ongizatea eta Euskara) hartzen dute parte.



Isidro HERGUEDAS Bidelagun elkarte koordinatoratzailea

JON ALTZUGUREN

ELKARRIZKETA
ELKARRIZKETA

«Bertze kulturekin elkarbizitzen ikasi behar dugu inmigranteen bitartez»

Joxemanuel IRIGOIEN

Elizondoko Arizkunenean aurkeztu zenuten Kultur Aniztasunaren Aldeko Plataforma. Zer da hori? Baztanen eta eskualde osoan badi-ra dagoeneko, eta oraindik gehiago etorriko dira, bertze herrialde eta kulturetako jende aunitz. Ukrainiarrak, Errumaniarrak, Ekuatoriarrak, Peruarak... hainbat eta hainbat herrietakoak. Horren ondorioz, diferentziak sortzen ahal dira, ona eta txarren arteko sailkatzeak. Orduan, Kultur Aniztasunaren Aldeko Programa honekin adierazi nahi dugu guztiak onak direla berez eta zerbait emateko badutela, guk ere ikasten ahal dugula, ikuspegi desberdinak daudela. Azken finean, bertze kulturak ez dira ez onak ezta txarrak ere, diferentziak baizik.

Eta nola pentsatu duzue hori ikus-taraztea jendeari?

Bi norabidetan eginen dugu lan: hemengo jendeari begira alde batetik, eta etorkinei begira bertzetik. Hemengo jendea sentsibilizatzeke, ekitaldi aunitz ditugu pentsatuak eta

«Bi helbururekin sortu da Kultur Aniztasunaren Aldeko Plataforma: Baztango eta eskualdeko jendea sentsibilizatzea eta etorkinei gure kultura ezagutzera ematea»

abian jarriak. Esplikatu nahi diegu zergatik etortzen diren, zein balio eta balore ekartzen dituzten... eta bertze alde batetik etorkinei buruz, berriek ezagutzeko gure kultura eta hizkuntza, gure gizarte antolatzeke modua nolakoa den. Bi helburu horiekin sortu da Plataforma hau.

Plataforman jende aunitz biltzea lortu duzue, ezta?

Bidelagun Boluntariora Elkarteak deituta, joan den martxoan hasi ginen bilerak egiten. Aurkezpena orain egin da baina aitzinetik bada lan aunitz egina. Baztango eskola eta institutuak, LAB eta EHNE sindikatuak, Eguzkilore Emakume taldea, Kultura eta Gizarte Ongizate Zerbitzua, Euskara Zerbitzua eta Osasun Etxea. Horiek guztiak bildu eta gaur egungo inmigratioaren egoera aztertu ondoren sortu dira hainbat aktibidade.

Azaroan hasi eta hurrengo hilabeteetan badute segida.

Aktibidade horietatik zein aipatuko ditugu hemen?

Batzuk eginak dira dagoeneko. Azaroaren 1ean futbol partidak jokatu ziren Baztango eta Ekuatoriarraren artean. Abenduaren 5ean, Boluntarioraren Nazioarteko Egunean gai honen zerikusia duen hitzaldia (Agustin Untzurrungaza, SOS Arrazakeria) eta musika emanaldia egin zen (Ukraina). Martxo aldean Ekuadorri buruzko kultur astea eginen da, ekuatoriarrak parte hartuz eta Baztan osari eskainia. Ikastetxe guztiak ere gustora sartu dira programa honetan eta ikastetxe bakoitzean hainbertze ekimen landuko dituzte. Etorkinengat euskara ikastaroak, emakume elkarteak ere jarduerara batzuk antolatuko ditu, LABek lan kontratuei buruzko aholkularitza eskainiko die eta guztien koordinazioaz gu arduratuko gara, Bidelagun elkarteak.

Aktibidade aunitz, ageri denez. Gertatu ahala emanen diguzue horien berri?

Dudarik gabe!



ARGAZKIAK: EDURNE ZUBIETA

Eleuterio Migelena, Jesus Mari Sein eta Pascual Iguzkiagirre saskigileak.

Garai batean, duela ez hainbertze urte, saskigintza izan zen Igantziko industriarik handiena, labrantzarekin batera noski. Erraten dutenez, aldi berean 35 saskigile izan omen ziren herrian. Normalki gaztainarekin egindako zimitza izaten da neurri ezberdinetako saskiak egiteko lehengaia eta horretatik ausarki ba omen zen Igantzin. Nork erosi ere bai: Pasaiaiko portutik hainbertze eskatzen zituzten, arraina garraiatzeko. Iruña aldera ere aunitz saltzen omen zen, barazkiak biltzeko eta baita Diputazioara ere: Kamineroek gaur egungo tresneria ez zutenez, harri xehea saski zabal-zabal batzuetan eramaten baitzuten. Gaur egun ez da halakorik. Plastikoak eta Laminaciones de Lesaca lantegiaren etorrerak 1960. hamarkadan, gainbeheran jarri zuen saskigileen ofizioa.

GARAI BATEAN 35 SASKIGILE ARITU ZIREN IGANTZIN

Plastikoaren garaiak hondoratu du indartsu izan zen saskigintza ofizioa

Aitor AROTZENA

Abendu hasieran Igantzin egin diren Kultur Egunetan omenaldia eskaini nahi izan diote herrian izan diren eta diren saskigileei. Agustin Antxordoki saskigile ezaguna omendu zuten eta bertara hurbildutakoek saskia osatzeko egin beharreko prozesu guziaz ikusi ahal izan zuten, pausuz pausu. Bere garaian, herriko diru-iturri nagusietako bat izan zen: laborantza eguneroko ogia jateko eta saskigintza diru pizar bat ikusteko. Gaur egun ez da halakorik. Garbe-reako Jesus Mari Sein bakar baka-

rrik aritzen da ofizio honetan, erretiroa hartu ondotik. Dena den, Garbe-reakoarekin batera, gazte denboran saski egiten aritutako Itturrian etxeko Pascual Iguzkiagirre eta Luienbordako Eleuterio Migelena izan ditugu solaskide. «Bertze gauzarik ez zen—dio Seinek— eta materiala, gaztaina, bazez aunitz herrian. Horregatik izan zen hainbertze saskigile hemen, batek bertzeari ofizioa erakutsi eta hortik hasi zen. Saski egitetik bakarrik ezin zen bizi, bertzerikan zerbait behar zen. Berrogeita gehiago urte aritu naiz saskia egiten, baina labran-

tza ere izaten nuen eta biekin familia aitzinera ateratzen nuen, bertzerik gabe». Pascual Iguzkiagirrek 20 urte eman zituen saskiak egiten eta bere ustez, «plastikoa hasi zenean, orduan hasi zen jausten eta ofizioz aldatu behar izan genuen, Laminaciones-era ere jende aunitz joan zen».

IGANTZIKO SASKIAK PASAIAKO PORTUAN ETA DIPUTAZIOAN

Hemen egindako saskiek bazuten non enplegatua. Pascualek aipatu digunez, Pasaiaiko portur aunitz saltzen zen: «Arraina granelean ekartzen zu-

Jesus Mari SEIN *Igantzikoko saskigilea*



Lehenago saski mota bera egiten da orain edo aldatu da?

Oraindik ere lehenago saski moduak egiten dira, zare haundiak, buruzari horietatik eta bertze saskiak... Orain kantidadea aldatu da, neurriak: *'tamaina honetako bi saski behar ditut'* eskatzen dute. Eskuzare ttiki horietatik ere aunitz saltzen da, neurri ezberdinekoak, egin ahalak. Okindegiatarako ere aunitz egiten dira. Okin batzuk kapritxoa izaten dute, baina bertze batzuk nahitaez saskiak behar dituzte. Ogi beroa sartuz gero, plastikoa beratu egiten dela erraten dute eta tekua uzten omen dio.

Lehenago labean berotu gabe prestatzen omen zen materiala...

Lehenago bai... gura aita zenak etxeko saskiak berak

egiten zuen eta Igantzikoko Bentan ere bazen zextero bat, bere denbora guzian berotu gabe egin zuena. Gipuzkoatik hiru lagun etorri ziren honat saskiak egitera eta eurek hasi omen ziren labearekin, erraten dutenez. Egurra egosiz gero errexago lantzen da, berotasun horrekin guritu egiten baita. Saskiaren ipurdia egiteko ere zimitza zabala behar da eta hori lortzeko hobe da aitzinetik berotzea.

...eta edozein gaztainondok balio du zimitza egiteko?

Ezta pentsatu ere! Gaztain txarra behar da horretarako, ez mendietan ikusten den haundi hori. Batzuk erraten dute nahiko gaztaina badela mendian, eta uste dute haietikan egiten dela saskia, baina gaztain horrek ez du balio. Enborra ipurditik ateri eta lehendabiziko pujak bakarrik balio du, hortik goitiko adarrek ez dute bakar batek ere balio!

“Okinek nahiago dute betiko saskia, ez baita plastikoa bezala beroarekin beratzen”

ten barkuetan, baina portura deskargatzeko saski aunitz behar zuten, itsasareta deitzen genien». Horrelako saskia egina du Eleuterio Migelelak, baina baita bertze gisakoak ere: *«nekazariendako buruzareta eta miaskiak edo miazareak egiten genituen, sei neurri ezberdinekoak»*. Iruñera ere saski pilaka eramaten zirela dio Garbereako Jesus Marik: *«Lesakako Bekarrottegunero joaten zen Iruñera. Orduan, Lesakara nolabait eraman eta berak garraiatzen zituen Iruñera. Patata biltzeko, artoa biltzeko, erremolatxa biltzeko... denetarako! Diputaziora ere aunitz eramaten zen, brea edo grabilla zabalteko erabiltzen zuten kamineroek. Orduan eskuz egiten zuten eta espresak egiten ziren, xabal-xabalak... Pilaka eginkatu ditut, harriarekin instantean xehetzen baitziren, abudo!»*.

Zimitza bakarrik egiten zuen jendea ere izaten omen zen: *«Sei-zazpi laguneko koadrila aritzen zen negu osoan saskiendako zimitzak egiten»*. Egur guzia ez zen zimitzarako erabiltzen, ordea. Eleuteriok dioenez, *«bigarren eta hirugarren muskilatik goiti ailaga egiteko erabiltzen zen, sardinazarren kupelen aroak egiteko, barkuetan ere erabiltzen zen...»*.

AZKENEKO SASKIGILEAK?

Arestian aipatu bezala, gaztaina izan da normalean saskiak egiteko lehena, baina Garbereako Jesus Marik erran digunez, haritz amerikanoa –gogorragoa–, gerezia, eltzaurra –gozoea, guri-guria eta xuria– edo urritza ere –hagitz polita, baina bihurria– erabili izan ditu. *«Dena probexten zen zimitza egiteko. Orain materiala txarra eta gutti dago. Igantzin ez da inon ere honetarako behar den gaia. Dena plantatu zuten, batean pinua, bertzean harritza... Joan den urtean bi tona Lesakatik ekarri nituen. Orain ez da aisa harapatzen eta mendian begira aritzen naiz. Gustokoa ikusten badut aizkorekin kaska eman eta etxera! Fama hori hartua dugu: zexteroa aizkora garraioan beti, portzikaso!»*.

Jesus Mari Seinen tailerrean izan gara eta beldur da ofizioa berekin batera akautuko ote den. *«Semea hagitz ongi hasi zen, baina lagun guziak mendian aritzen ziren eta arratsaldean bazkal ondotik pilotara joaten ziren, eta semea berriz hemen. Mendira joan zen lanera»*. Hemendik aitzinera ez dio etorkizun handiegirik ikusten saskigintzari. *«Saskigile bakarrik ere ez da geldi-*



Saskigileak lanean.

tuko hemen. Ni naiz gazteena. Bada bertze bat, baina harek materiala prest ekarri egiten du. Labearekin aritzen den bertzerik ez dut ezagutzen, ez dakit Nafarroa osoan izanen den!».

Lege Gordailua: NA-1324/85
ISSN: 1578-4673
Frankeo Itundua: 34/79
Tirada: 7.100 ale

ttipi-ttapa aldizkaria
Herriko Etxeko Plaza, 1
E-31780 BERA (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 11 88
Faxa: (+34) 948 63 12 91

www.topagunea.com
ttipi-ttapa@topagunea.com

Jabea: ttipi-ttapa fundazioa.
Presidenteak: Pello Apeztekoa.
Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.
Zuzendaria: Aitor Arotzena.
Publizitatea: Kulturkari, S.L.
Administrazioa: Amaia Goia.
Erredakzioa: Aitor Arotzena, Rakel Goñi. **Berriemaileak:** Mikel Illarregi, Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Xan Harriague, Angela, Ihintza eta Eneko, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Rakel Goñi.
Kolaboratzaileak: Rakel Amigo, Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketak...
Inprimategia: Gertu. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi eta Sarako udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortziritako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea, Zugarramurdiko Akelarre Elkarte...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	21 €
Espainia	21 €
Ipar Euskal Herria	33 €
Europa	33 €
Amerika	103 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka, Leitza eta Areso	18 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

• IRAKURLEAK MINTZO •

Elkartasun adierazpenak

2001eko abuztuaren 14a. Etxalarko besten hasiera. Arratsaldeko 7:45. «Euskal presoak Euskal Herrira» lema-pean kontzentrazioa herriko plazan. 60 bat lagun presoan eskubideak aldarrikatzen (Legeak erraiten duena betetzeko). Emaizta: 9 pertsona denuntziatuak. Ondorioa: 2.700 euroko (450.000 pezeta) isuna (multa). Herriarren elkartasuna: Isunak ordaintzen laguntzeko kontu korrantea idekia. 1.450

euroko aportazioa bildua. Denuntziatuak: Eskutitz honen bidez herriarren elkartasun adierazpena bihotzez eskertzen dugu. Agur bero bat Kotto, Iñaki eta Enekorri. Euskal presoak Euskal Herrira!!!

Etxalarko kontzentrazioan denuntziatutakoak.

339. aleari buruz

Lagun agurgarriok: ez nuke denbora pasatzen utzi nahi gure agurrak,

Argentinako Lizardi familiarenak, hurbiltzen zaizkigun besta egun hauen aitzakian, bidali gabe eta modu batera edo bertera aldizkari eder hau jaso edo irakurtzen duten guzietan heharazteko.

Argazkiak, bai azalekoak baita 4. orrikoak zogarriak iruditzen zaizkigu, izan ere lurralde horretaz solasten dugunean aipatzen dieguna erakusten ahal diegu gure lagunei.

Poz handia hartu nuen, modu berean, nire osaba-izeba Antonio eta Mari Pazen etxea, Txopenea, ikusi nuene-

an lgantzin.

Nire aita, Miguel Lizardi Yanci, hil zela hamar hilabete bete badira ere, aldizkaria jasotzen dugunean hiztegia ere hartzen dugu, gehien erakartzen gaituena gainetik bederen itzultzeko. Beti erraten diot amari bera irriz lehertzen ariko dela euskara itzultzaile lan honetan ikusten gaituenean.

Agur bero bat guzientzat eta besta zoriontsuak.

María Elena Lizardi Betbesé

ANSONEA jatetxea

Eguneroko menua eta karta
Asteburu eta jai egunetan menu berezia

Foruen Plaza 1 • ☎ 948 631155 • BERA

Bidali
ttipi-ttapa
herriatik kanpo bizi diren lagun
edo familiakoei

☎ (+34) 948 631188

MARTIKO

Abatekietan adituak eta arituak

☎ 948 625016 • Fax 948 625036
Alkaiaga Industrialdea • BERA

BORTZIRI
UNSION ANAIAK
sukalderako haltzariak

ERAKUSKETA
Bereau etxea • LESAKA
Tel eta Faxa: 948 637 266

DROGUERIA MOLINERO

• DROGERIA • LURRINGEGIA • OPARIAK •

2.000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina
10 minututan zuk nahi duzun kolorea
Profesionalentzat prezio berezia

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



ARGIA 2002-11-24

«Elkartasunaren filosofia martxan jarri nahi dugu. Hau da, Martzillan euskaraz ikasteko dagoen arazoa edo nire herriko ikastola ilegala izatearena, ez dadila gure arazoa bakarrik izan, baizik eta Beasaingo euskaltzalearena ere bai. Hori da kohesio lana egitea»

Oskar GOÑI
Udalbiltzako bozeramalea. Bera.
ARGIA 2002-11-24

«Gaur egun komunikabideetan ikusten den futbola jende helduarentzat da, ez haurrentzat. Bi erronboko pelikula bat bezalakoa da, jokalaria profesionalak erakusten dutena haur batek inoiz egin behar ez duena baita, baina horixe ikusten du. (...) Kirol bat praktikatzen hasten diren haurren %98a bertze zerbaitetam aritu beharko dute bizitzan eta horretaz jakitun izan behar dute gurasoek».

Joxe Mari BAKERO
Goizuetako futbolari ohia
D. Navarra 2002-11-25

• 11 GALDERA LABUR •



Maitane GEREÑO Aresoko igerilaria

Maitane izena edo hitzak maitagarria esan nahi al du?

Ez dakit, baietz pentsatzen dut.

13 urteko neskatila edo neska?

Neska, neska... (farre egin ondotik).

Osasun arazo batengatik igeri egitea gomendatu zizuten?

Bai, bizkarrezurrarengatik. Gero gustatu eta...

Noiz hasi zinen igeri egiten?

Duela lau urte.

Nola Gipuzkoako Igarondo taldean?

Lagun baten medioz, bera han aritzen zen eta...

Zu bakarrik piszinako uraren kontra.

Nola moldatzen zara?

Beno, segun... Batzuetan asko sufriarazten dit, baina beharrezkoa da sufritzea zerbait lortu nahi badut.

Ikasketak eta kirola uztartzen ahal dira?

Bai, bietarako denbora badago, gogoartzen baldin baduzu.

Piano ikasketak utzi zenituen igerian denbora gehiago emateko. noizbait penatu al zaizu?

Ez, beno, hasieran bai, dena nahi nuelako, baina orain ez, igeri egin nahia-gu dudala konturatu naizelako.

Badakigu Gipuzkoako txapeliduna izan zarela. nola dago curriculum-a?

Euskadiko txapelidun bi probatan eta Espainiako txapelketan bi probatan parte hartu nuen.

Zein litzateke zure helburua?

Nire buruari beti gehiago eskatzen diot, ahal dudala badakitelako.

Igerian izan duzun momenturik one-na eta txarrena?

Iaz Gipuzkoako Federazioarekin pasatu nituen bi egunak. Pozgarriak lagunak egin nituelako, gazteena nintzen eta Federazioak aukeratu izanagatik. Baina entrenamendu oso gogorra zen eta amorrarioz ibiltzen nintzen.

G U T N T E
I C H E
MALDAERREKA, S.L.

**FUNERARIA
ZERBITZUAK**
DONEZTEBE BEILATOKIA

Bortzirriak eta Malerrekan
24 orduko zerbitzua beilatokian
eta etxean prezio guzietan

Trasladoak Iruñea, Donostia, Irungo
ospitaletatik edozein herrietara

☎ 948 637404
© 900 704704

BIZIKETA - BIKI

Bizikleta Tailerra
errepide, mendi, trekking
eta haurrentako bizikletak
Arropa eta osagarriak
Salmenta eta konponketa

Kanttonberrri 1, bis • BERA
Fax - Tel: 948-631218

ZJ
Zalain
jateetxea

© Zalain S.L. • Tel: 948 45 21 26
Bera - Nalderri

H. Lopez
iturgintza

- Kalefakzioa
- Gas Instalazioak
- Iturgintza industrial
- Ureztatze sistemak

Tel.: 948 45 21 26
Mug.: 617 34 99 44
NARBARTE

HARRI NATURALA

Irungo errep. - BERA - Tel. 948-631317

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximiniak
Angeluak	Erlaizak
Orma antzinak	Moldurak
Lehoak	Zokaloak
Ateak	Hilariak
Arkuak	Marrazkiak
Pilareak	

'Abujantxakoa' Macizoa
Zahar antzekoa Txapeantxa

**ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK**

LANA

Zuzendaritzak Zalain saltzeko asmoa duela adierazi du Aceraliako Enpresa Batzordeak

Gasteiz eta Alemaniako bi enpresa lantegia ikusten izan omen dira

ttipi-ttapa

Lesakako Aceraliako enpresa batzordeak, zuzendaritza Zalain eta Berriobeitiko tubo lantegiak saltzeko asmotan dabilela azaldu zuen abenduaren 12an Iruñean egindako prentsaurrekoan. Zalaingo lantegiak 490 langile ditu, eta Berriobeitiko Perfrisak 123. Asmoak Aceralia Trasformadosen etorkizunean eragina izanen luke eta Baztan-Bidasoa eskualdearen gainbehera ekar lezake.

Lesakako Aceraliako enpresa batzordeko sindikatu guztietako ordezkariak kezkatuta azaldu ziren. Arcelor-eko zuzendaritza zein Nafarroako Gobernuaren jarrera kritikatu zuten hainbatetan eskatu dituzten bilerei ez erantzuteagatik. Multinazionalari eskatu diote lantegiok zein asmo dituen zehazteko, horrela nondi jo behar duten jakinen dutelako.

Sindikatuaren ustez, Arcelor-ek desinbertsioak aurreikusten ditu %15eko errendagarritasuna lortzen ez duten lantegietan zein tuboak fabrikatzen direnetan. «Hainbat aukera, salmenta barne, ikusten ari direla erraten digute. Badituagu datuak salmenta agerikoa dela adierazten digutenak», aipatu zuten prentsaurrean.

Tuboak egiten dituzten Condesa edo Bamesa enpresek, egoitzak, hurrenez hurren, Gasteiz eta Alemanian dituztenak, Zalain eta Berriogoitiko lantegiak ikustera hurbildu dira. Zalainera bideratzen da Lesakako produkzioaren %20a eta lantegi ezberdinetan sailak partekatzean, produkzio kosteak igo eginen lirateke, Enpresa Batzordeak dioenez.

BAZTAN-BIDASOARAKO ONDORIO KALTEGARRIAK

Lesakako Enpresa Batzordeak (LAB-eko sei ordezkari, ELA eta UGTko bosna, CC hiru, CCOO eta ESK bina) nabarmendu zuen Zalaingo lantegiaren salmentak Baztan-Bidasoako zonaldean ondorio kaltegarriak izanen litzukeela. Ildo horretan, 1994tik 1997ra Aceraliak birmoldaketa handia sufritu zuela erran zuten sindikatuek: 400 lanpostu galdu ziren eta hiru lantegi itxi ziren, horietako bat Iruñeko Errotxapea auzoan. Aurre-



ARTXIBOKOA

Zalaingo lantegiak 490 langile ditu gaur egun.

kariok aintzat hartuz, zuzendaritzari azalpen argiak eskatzeaz gain, Nafarroako Gobernuari «politikoki zein ekonomikoki inplikatzeko, akzioak erosin inplikatu dadila lantegiaren defentsan» eskatu zioten.

Enpresa batzordeak Nafarroako Go-

bernuko Industria eta Lan Departamentuarekin lan egutegi bat egitea eskatu du lantegietako etorkizuna bermatuko duen proposamena gauzatzeko. Euren eskaerak aintzat hartzen ez badira, lanuzte eta mobilizazioak hasteko prest azaldu dira langileak.

Kalotxa Zapatadenda
ZAPATAK ETA OSAGARRIAK

BERA • Legio 42
948 63 15 16

Abenduak 21, 28 eta ibeltzak 4 larunbat
irribeltzak 5 goizez irekia

KOLOKAN

DEKORAZIO ESTUDIOA

6677 17681

-altzariak, edredoi nordikoak, mantak, lanparak, opariak, sofak, altzari auxiliarrak, alfonbrak, kortinak, aukeran.

TITULATURIKO DEKOREDORA

-proiektu eta erreformak etxebizitza eta lokal komertzialetan.

BESTA ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!!

BERA

Testu-liburuen bilketa kanpaina egiten ari da Toki-Ona Institutua

Ortziral honetan akautuko da liburuak emateko epea

Amaia eta Ainhoa

Toki-Ona institutuak testuliburuen bilketa kanpaina martxan jarri du Eguberrietako Elkartasun kanpainaren barnean. Behar Bidasoa erakundearen laguntzaz frantsez eta gaztelaniaz dauden testuliburuak bilduko dira behartuak dauden herrialdeetara bidaltzeko. Abenduaren 20a izanen da bilketa azken eguna eta jakin edozeinek eraman ditzakeela liburuak (partikularrak, ikastetxeak edo institutuarekin zerikusirik ez duenak). Testuliburuak Institutuira eraman behar dira, 8:00etatik 15:00etara. Gogoratu etxe xokoan dituzuen liburu zahar horiek behar beharrezkoak direla hainbat pertsonentzat.

Olentzero

Urtero bezala eta Eguberrietako oporrei hasiera emanez, datorren abenduaren 24an haurhezkuntzako ikasleak Olentzeko kantari ibi-



ARGAZKIA: EDURNE ZUBIETA

Ez da denbora aunitz llekuetako zubia zabaltzeko lanak akautu direla eta da goeneko lehenengo arazoa sortu da. Kamioi batek baranda ukitu eta bertan behera bota du. Argazkian ikus dezakezue nola gelditu den!

liko dira, denak elkarrekin Herriko Etxeko Plazan lehenik eta taldeka eta auzoka banandurik beranduago. Ilunabar partean berriz, eta ohiko legeari jarraiki, Gure Txokoa Elkartearen eskutik gazte nahiz helduak aterako dira, herri guztian barna gabon kantak zabalduz.

EHNA

Udalbiltzak jakinarazi nahi du EHNA esku-ratzeko kanpaina irekiri darraiel. Jadanik lehenengo eskaerak egin zituztenak berau jaso-tzera pasa daitezke. Eta oraindik beren eskaera egiterik izan ez dutenei, bertarat hurbiltzeko eta informatzeko gonbitea

luzatu nahi die. Hagitz erraxa da, aski da pardoien agiria, 3 argazki eta bankuko ordainagiria eramatea eta 45 egunen buruan, bulego berean, EHNA txartela jasotzen ahal izanene da. Udalbiltza Bulegoa ortzileroko egoten da idekia da, 18:30etatik 20:00tara.

FLASH

Udalaren erabakia

Bautista Barandalla pre-soaren eritasunaren garapena eta kartzelan izandako tratua jasotzen dituen mozia aurkeztu zen zen azkeneko udalbatzarrean, aho batez ondorengo erabaki zelarik: Bautista Barandallaren askatasuna eskatzea, Espainiako zigorkoderearen 92. Artikuluan zehazturikoaren arabera eta herri mobilizazioekin bat egitea.

Kontribuzioak

Hilabete honetan akautzen da bigarren sei hilabeteko kontribuzioa eta bigarren lauhilabeteko urreziboak ordaintzeko epea.

Kultur Agenda

Urteko azkenengo laurunbatean, abenduak 28, Emaizta Antzerki Taldeak "La Herencia de Tia Cornelia" antzez-lana taularatuko du Kultur Etxean, 18:00etatik aitzin. Abenduaren 29an bertso saioa izanen da Berako Euskara Batzordeak antolatuturik. Mikel Taberna izanen da gai jartzaile, eta haren agindupean Joxe Lizaso, Joxe Agirre, Igor Elortza eta Xabier Silbeira arituko dira bertso kantari. Guzti hau Kultur Etxean izanen da 18:00etatik aintzin.

Alzuri
 Sukalde tresneria eta opariak
 Landare eta loreak
 Tfnoa: 948 630 370
 BERA

FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIO ZENTROA
Karlos Alzugaray
 FISIOTERAPEUTA
 Lan istripuak
 Trafiko istripuak
 Kiral lesioak
 Gihar, artikulazio... minak
 Bizkortze eraketak
 Bertze tratamenduak
 Masajeak
 Itzez etxeko laguntza.
 Istea: 20 BERA
 Tfnoa 948 630187
 Mugikorra 607 853208

LORE ETXEA
Lore eta landareak
 Frain auzoa · LESAKA
 Tfnoa: 948 637826

ie Iriarte-Echandi, s.l.
 • Aholkularitza
 • Artekarietza
 • Aseguruak
 Kanttonberri | BERA • Tel eta Faxe: 948 631169

LORE ETXEA
 © 948631076 • BERA

LESACA

Mairu antzerki tailerrak lan berria estreinatuko du igande honetan

Kattun eta Atxaspin eskainiko dute «Krabelinak uharteetan»

Aitor AROTZENA

Mairu antzerki taldeak «Krabelinak uharteetan» izeneko antzezlari berriaren estreinaldia egingen du abenduaren 22an Lesakan bertan. "Trizikloa" eta "Zugarramurdiko sorginak" antzezlarien arrakastaren ondoren, ikuskizun berria kafe-antzerki moduan emateko pentsatuta dago, jendearekin harreman estuagoa lortuz. Ikuskizunak zazpi bakar solas biltzen ditu. Hauek ez dira denak segidan eskaintzen, banaturik baizik. Estrenaldirako Kattu eta Atxaspi ostatuak aukeratu dira, ikusleari paseo bat proposatuz. Edo bi aukera emanez ordu ezberdinetan. Denen, edukia hobe atzemateko denak ikustea komenigarria da.

Ikasturte honetan egin duten funtsezko lana erakutsiko dute Mairu tailerrekoek, bertze lanen gainetik lan pertsonalari lehentasuna eman baitzaio, bakar-



ARGAZKIA: AITOR

Gaizka Sarasola lesakarrak idatzitako ipuinean oinarritutako «Ilargiaren ortzadarra» antzezlana ikusgai izanen da abenduaren 29an, igandearrekin, 20:00etatik aitzinera Zambran. Ikuskizunean bertsolariak, akordeolariak, trikitilariak, abesbatzako kideak, musika bandakoak, Mairu taldekoak edo dantzariak arituko dira eta bi bideo proiektzio ere izanen dira. Arrano elkarteak antolatuko du udalaren laguntzaz, «Arte eta Kultura» egitarauaren barnean. Argazkian «Zugarramurdiko sorginak» antzezlariaren irudia ageri da.

solasen egitura landuz.

Igandean izanen da emanaldia eta horretarako hitzorduak finkatu dituzte. Kattu ostatuan 19:30etan ikuskizunaren lehendabiziko zatia. Ondoren, zerbait pika-tzeko eskainiko da eta

handik Atxaspira abiatuko dira antzezle eta ikusleak. Emanaldi honetan aktore gisara parte hartuko dute Ritxi Abril, Josune Etxepare, Arantza Garmendia, Maite Mendegia, Gotzone Rekondo, Juanen

Saralegi eta Gaizka Sarasolak; Xabier Portu, Ritxi Abril eta Josune Etxepareren musikarekin lagunduta eta Ramon Albisturen zuzendaritzapean.

Mairu antzerki tailerra 1998. urtetik ari da

FLASH

Euskal Herrian Euskaraz

Abenduaren 6tik 12ra, euskararen egoera eta historiari buruzko erakusketa ikusgai izan da Arrano elkartearen. Erakusketa honek aitzakia eman du joan den ortziralean, abenduaren 13an, Lesakako Euskal Herrian Euskaraz taldearen aurkezpena egiteko.

San Nicolas

San Nicolas Eguna ospatu zuten abenduaren 6an Irain eskolako ikasleek. Azkeneko lau urteotan, gerra aitzinetik galdu zen ohitura hau berreskuratzen ari da Irain Guraso Elkarteak. Gotzaiez janzten da ikasle bat eta bertze hogeita hamabi monaguiloz. Lesakako trikitilari taldearen laguntza ere izaten dute eskean. Biltzen duten dirua Gobernu Kanpoko Erakundearen batentzat izaten da, Medicus Mundi, Anesvad... Aurten, hezkuntza proiekturen bat laguntzeko asmoa dute.

antzerki ikasketan eta sortze lanean. Tailerra edozein pertsonari irekia da. Aurten ere haur koskorrekin bi tailer antolatu dira. Parte hartu nahi duenak 948637 145 telefonora deitzen ahal du (Gaizka Sarasola).

ZUBIONDO JATETXEA
Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
saqardoteqia jatetxea saqardoteqia

Rafa
600 819 640
PINTURAS LEGUIA s.l.
Eztegara 26, 2.C - BERA

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 948 627 514
Beheko Plaza 8, LESAKA

IRU BIDE
ERRETEGIA
Tfnoa: 948 637 127
LESACA

ANANA
Janaridena
Bittiria 41 • 948 637518 • LESAKA

XATURETXEA
74541
JATETXEA
Tfnoa: 948637027 LESAKA

LESACA

ETXALAR

Urtetik urtera uso guttiago Usategietan, urtetik urtera sasoi txarragoa

38 dozena bakarrik hartu dituzte aurten, joan den urtean baino guttiago oraindik

Joseba eta Nerea

Honako titularra paratu genuen duela urtebeteko TTIPI-TTAPAN: "Usategien historian izan den uso-sasoirik txarrena izan da aurtengoa". Eta aurten ere gauza bera jarriko genuke, iazkoa baino oraindik sasoi txarragoa izan delako. 38 dozenarekin konformatu behar izan dira usazaleak (454 uso). Arront kopuru exkaxa da hori, duela urte batzuk hartzen zenaekin alderatuz. Patxi Elizalde usazalea horren zergatia esplikatzeko saiatu da: «Ez dugu batere eguraldi onik egin eta haizia gure kontran eduki dugu denbora guzian. Sasoiaste batez luzatu genuen eguraldi hobearekin zuelakoan baina lehenegian segitu zuen. Denbora gehiago pasatu dugu txabolaren barrenean kanpoan baino».

Dena den, urteroko ohiturari eutsiz bertze herrietako usazaleekin bazkaria egin zuten



ARGAZKIA: NEREA MITXELTORENA

80 urte aurten bete dituztenak omendu zituen Larraburua elkarteak.

abenduaren 7an, Alduden. Gerardo Danborienak, bazkariaren ondotik, Etxalarko Usategietan bertze herritan baino uso guttiago hartu dutela erran zigun. «Pasatu, usua pasatu da baina saretan behintzat ez da gelditu». Kontuak kontu, uso-sasoi txarra izan bada ere, bazkari ederraren inguruan akabatu zuten denboraldia, lagun artean so-

lasean eta irriz. Hori behintzat merezi zuten.

80 urtekoei omenaldia

Xabierko San Franzisko eguna aukeratu zuten Larraburua jubilatutako elkarteak aurten 80 urte bete dituzten kideak omentzeko. Hildakoen omenez emandako meza ondotik otordu ederra izan zuten elkarteak. 72 lagun bildu

ziren Herriko Ostatuan prestatutako bazkariaren bueltan. Postrearen ondotik eman zioten hasiera omenaldiari. Hauek izan ziren aurten omendutakoak: Zamateluko Cipriano Sansiñena Irisarri, Tellegiko Bordako Francisca Sanzberro Elizalde, Guantxai-ko Bordako Dolores Ariztegi Izurrieta, Mitxelene-ko Bordako Natalia Zubieta Sanzberro, Pe-

rugorriko Bordako Pakito Arburua Irisarri, Maineko Asunción Indaburu Sanzberro, Intzeako Mari Cruz Agirre Lairez, Maixkiko Bordako Regina Ibarra Espelosin, Aldalurko Bordako Juanita Ariztegi Sanzberro eta Iturbereko Maria Ezeiza Zabala. Ez zuten denek hor egoterik izan eta falta zirenen ordeztu familiakoek hartu zuten orogarria. Eguna ongi akabatzeko Iturengo Ramontxo musikariarekin dantzaldia izan zen.

Eguberriak gainean

Heldu den asteartean etorriko da Olentzero bisitan gure herrira. Urteroko ohiturari segituz, ilunabarreko meza-aren ondotik herri-buelta egingen da txistulari, trikitilari, haur eta gurasoekin. Haur eta guraso guztiak animatzen zaituztegu Olentzerori ongi etorri bero bat egitera. Eta bide batez, 2003 zoriotsua opa dizuegu!

EDARRIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa K/82 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.- Fax: 948. 63 10 27

Lanchas

PARKETAK - TARIMAK
KUTXILLATZEA ETA BERMIZATZEA
ESTALDURA OROKORIRAK

Bera - Tfnoa: 948 630 715 - 607 406 781

SAROBÉ

okindegia

SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

HERRIKO

TSYATSU - JATETZEA

IGANTZI



ARGAZKIAK: OSKAR TXOPERENA

Amabirgin Egunean saskigintzan aritutako talde polita biltzea lortu zuen Biltoki Elkarteak. Ez daude lanean aritutako guziak goiko argazkian, baina, saskigintzak Igantzin denbora batean izan zuen garrantzia erakusten digu talde honek. Gaur egun Agustin Antxordoki, Jesus Mari Sein eta Carmelo Migelena eta bere semea dira lan honetan segitzen duten bakarrak.

Baratzondo elkarteko besta

Abenduaren 11n egin zuten

Oskar TXOPERENA

Azken asteotan mus eta partxis txapelketa jokatzen aritu dira Baratzondo Elkarteko bazkideak. Bada, abenduaren 11an egin zuten txapelketaren akabilarren besta eta sari banaketa, musika eta guzi. Musean Pascual Iguzkiagirre eta Jesus Mari Sein izan ziren irabazleak eta Miguel Dorronsoro eta Jose Javier Urtxegi gelditu ziren bigarren. Partxisean, berriz, emakumeak izan ziren irabazle, Nieves Matxikote eta Herenia Izcoq irabazi baitzieten finala Juan Sein eta Urbistondori.

Aziendak eta mendiak

Azineden aitortpena abenduaren 20an akautuko da eta mendiak erretzeko eskaerak egiteko epea ireki da heldu den urteko otsailaren 15era arte.



Bereziki Agustin Antxordoki omendu nahi izan zuen Biltokik, saskigintza kanpoan gehien erakutsi duen eskulangilea izan baita. Argazkian Biltokiko ordezkariak Agustin eta Dolores emaztearekin.

JAVIER - GOZOTEKIN

Altzate, 19•948630786 •BERA

BERRIZUN S.L.

Makinaria eraikuntza
Moldaketak eta despiezea
Mantenimendu mekanikoa
Torno, fresadorak, errektifikadorak

Igantziako Bentak • © 948627572 • Faxa: 948637313

Javier Manterola

TEKNIKO
INSTALATZAILEA
iturgintza • gasa • kalefakzioa
Tfnoa: 629 44 96 02 • BERA

Alberto RETEGI
abokatua

Altzate 17 • BERA • © 948 630 763



Larunbata goizean Kulkirekin eta bere herri kirol tresnekin ederki pasatu zuten herriko neska-mutikoeak. Argazkian, Irati, Janire eta Ane ageri dira gurdia ezin altxatuz.



Nafarroako Gobernuak antolatzen duen Udazkeneko Biraren ekitaldia ere Kultur Egunean sartua zegoen. Aurtengoan Limerick irlandar musika taldea entzuteko aukera izan genuen Baratzondon eta jendea izugarri kontent atera zela erran behar da.



Julen Taberna eta Iker Rojok Bortzirietako Binakako Txapelketa irabazi zuten benjamin mailan. Azpitxapeldun, berriz, Joseba Bertiz eta Mikel Begino, Eneko Telletxea eta Arkaitz Retegi, eta Iker Sein eta Beñat Txoperena gelditu ziren.

ARANTZA

Urtea modu egokian agurtzeko kultur ekitaldi purrusta prestatu dira

Eskolako ikasle eta irakasleek lanak antzeztu zituzten jendaurrean

Nerea ALTZURI

Hilabetea erditik gora doaie eta orain artekoak erreparatu hasi gabe, hemendik aintzinerako iragarpenetan erreparatuta, agerian dago urte berria hasi aintzinetik ere, herritarrek ez daudela geldirik. Hilaren 11ean eta 15ean, asteazkenean eta igandean, eskolako lagunek antzeztan erakutsi zituzten. Asteartean, Etxalarko eta Igantziko eskolako adiskideen aintzinean eta igandean jende multzo baten aurrean, azkeen asteetako prestakuntzen fruitua antzeztan eman zuten. Bitartean, Olentzeroak egiten ari dira ikasgeletan eta Olentzerotako baserriar jauntziak prestatzen.

Baina, hain haurrak ez garen herritarrok ere parte hartzeko gogo faltarik ez dugu. Urte pare bat bada, herriko gazte eta gurasoak baserriarrez jauntzi eta karrika bueltan parte hartzen dugula gabon eguneko arratsaldean. Olentzerok, soinulariak eta kantak la-

gun izaten dira, eta Gregorio Mitxelenak zuzenduta Eguberriak kantak entsaitzen ari dire hondar ortziletan Ekaitza elkartearen.

Gazte Asanbladak ere abenduaren 22an Olentzero egiten parte hartzeko deia egin du; ondotik, gaztain jatea egiteko asmoa bada elkartearen.

Beraz, Olentzero eguneko atarian, haurrak, gazteak eta ez hain gazteak, guziak dena prestatzen.

Asteburu Kulturala

Gazte Asanbladako kideek guzia lotua dute abenduko hondar astebururako. Adin guzietan zuzendutako kultur ekintzen gainera berri emanez, solasaldia, antzerkia, filmeak... ongi pasatzeko aukera izanen da. Abenduaren 26tik 29ra luzatuko da negu hasierako kulturaldia. Abenduaren 26an, ortzegunean adibidez, solasaldia; biharamonean haur eta helduentzat zinea; biharamonean haur eta helduentzat zinea; eta larunbatean antzerkia.



ARTXIBOKOA

Bortziriak Pilota Elkartearen antolatutako binakako txapelketan aritu ondotik, indartsu hasi dira gazteak binakako lehiari. Tartean arantzar pilotari taldea ere ari da parte hartzen. Honako argazki hau Igantzin azaroaren akaberan eginiko Bortziriako binakako txapelketaren finalekoa da. Infantil A mailako Imanol Mitxelena eta Joseba Madariaga ziren aritzekoak, baina Josebaren lesio baten ondorioz, Alberto Fagoagak jokatu zuen Imanolekin. Esnaola eta Lassallete hendaiarren kontra galdu zuten. Nerbioek horrelako ekitaldietan egiten dutena! Bitartean, pilota kontuekin segituz, Bortziriak Pilota Elkarteak lehenbiziko batzarra egin zuen hilaren 9an. Batzorde edo junta bat eratu zen eta Martxel Jorajuria antolaketaren lanetan laguntzaile da taldean. Pilotatik ateri gabe, Pilota goxuan, txapelketan zazpi bikote parte hartzen ari dire. Tartean, Daniel eta Jabier Iparragirre, Tomas Telletxea eta Patxi Ordoki arantzarrak.

**ALBERGIA
JATETXEA**
© 948 634179
ARANTZA

TEL K
K MISET K
ISE K
TXISKEI X
N HI UZUNK U U, NEU I ET (SEINU) ERIN
Ezt r z h T l- F X 3 15 21

SALZONES UDANA, S. L.
*Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gaztusia
Bakailu gezatua eta kongelatu, erabiltzeko prest*
Alkaiaga ind. • Banarta, 8 - 23. pabilioia • LESAKA • Tel. 948 631536 • Fax: 948 631550

ITUREN

Kultur Egunak abenduaren 5tik 7ra ospatu ziren

Argazki Rallyko sariak eman ziren

Iban ISASI

Ibintza Kultur Taldeak joan den abenduaren 5etik 7ra bere kultur egunak antolatu zituen.

Hasiera talo jate batekin egin zen eta ondotik hitzaldi benetan interesgarria egon zen "euskararen egoera Nafarroan" izenpean. Honetara Andres Iñigo euskaltzaina, Dabid Anaut Leitzaldeko euskara teknikaria eta zenbait talde euskaltzaleko kidea eta Joxe Manuel Irigoien ttipi-ttapa aldizkari eta telebistako kazetaria hurbildu ziren solastera.

Hurrengo egunean, abenduaren 6an, haurren eguna burutu zen. Goiz osoan umeendako tailerrak eta jokoak

egin ziren. Eguerdian 45 gaztetxo inguratu ziren talde honek antolatutako bazkarira eta arratsaldean Okaren lehiaketa eta txokolatada izan ziren.

Gauerako antolatutako afarira 40 lagun inguru hurbildu ziren eta berandu, goizaldean, joraldunek, hartzak eta trikitilariak kalejira egin zuten herriko karriketan barrena besta behar bezala akitzeko.

Igandean, abenduaren 9an, azaroaren 1 eta 2an egindako argazki rallyaren sari banaketa egin zen. Aurretik kultur egunetan zehar erakusketa bat antolatua zuen talde honek Herriko Etxeko sabaiko erabilera anitzetako aretoan, eta bertara ikusle jo-



Goreti eta Miriam Altzuri ahizpen, Josefa Goñiren eta Jose Ignazio Ariztegi-
ren lanak saritu zituen epaimahaia.

an zirenek euren gutukoek ziren argazkiak bozkatu ahal izan zituzten.

Bozketa honetatik saridun suertatu zirenen izenak eta hauen argazkien ereduak orrial-

de honetan agertzen direnak dira. Ondena mantenduz: 1go saria, Goreti eta Miriam Altzuri ahizpek ("Udazkena" gaia); 2. Saria Josefa Goñik ("Borda bat" gaia) eta 3. Saria Jose Igna-

zio Ariztegi ("Kirola" gaia) eraman zituzten.

Hiru saridunak 3 gaitan izan ziren irabazle (12 gai zeuden) eta azkenean jasotako boto guzien arabera banatu ziren sariak.

© 948630052 • Zalain • BERA

GAZTANDEGIA

Lizun Etxeko Ardi Gazta

Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA

Ostargi Optika

OPTIKO OPTOMETRISTA

- Lentillak
- Ikusmen azterketa orokorrak
- Begietako tentsioaren kontrola
- Haurrei errebisioa egiten zaie

**Eta behar izanez gero...
ERA GUZTIETAKO
BETAURREKOAK
DITUGU ZURETZAT**

Bidasoa, 8 • Tel. 948 630753 • BERA

ARTEKARI

TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

- Asteleheneetik asteazkenera 9etatik 13tara eta 15etatik 19etara
- Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 63 70 50

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., Tfnoak: 133328 • 133346. Faxes: 133713

Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitopenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

DONEZTEBE

Jubilatuen besta eta kantu txapelketaren finala asteburuan

Erreka elkarteak zinea eskainiko du Eguberrietan

ttipi-ttapa

Arkupeak jubilatutako elkarrekin ongi gertatu diren abenduaren 20an, ospatu du urte akabailako besta Donezteben. Eguerdian Meza nagusia izanen da elizan. Eguberrietako kantak abestuko dira eta Bittor Elizagoien eta Txomin Garmendia bertsoariak ere ariko dira kantari. Ondoren, aurten egingandako ekitaldien eta heldu den urterako prestatur diren berri emanen da. 14:00ak aldera bazkaria izanen dute udal kirolegian Moderno jantxearen eskutik eta gero dantzaldia.

Bertze aldetik, larunbat arratsaldeko 17:30etan Nafarroako Euskal Kantu txapelketaren finala jokatu da Bordatxon.

Eguberrietako zinea

Erreka elkarteak, Doneztebeko udalaren laguntzaz zinea emanaldiak antolatu ditu Eguberrietarako. Abendua-



ARTXIBOKOA

Bazzan-Bidaso XI. areto-futbol txapelketan izen emateko epea urtarrilaren 6a arte zabalik dago. Aurten 24 talderentzat lekua izanen da, baina lehenbailen eman behar da izena 948 450260 edo 948 637318 telefonoetan.

ren 28an eta 29an, «La caja 507» eskainiko dute; urtarrilaren 2an haurrendako «Scooby-Doo» eta urtarrilaren 4 eta 6an «La casa de mi vida».

Santa Luzia Eguna

Joan den ortziralean Santa Luzia Eguna ospatu zen. Jostunen eguna denez, aurten ere omenaldia eskaini zi-

tziaon herriko jostun bati. Oraingoan, Virtudes Etxebeste Zozaiak jaso zuen Urrezko Titarea. Elizako gorapean eskulan erakusketa egin zen. Meza Nagusiaren ondotik egin zen omenaldia eta Bittor Elizagoien eta Manolo Arozenak bertso saioa eskaini zuten. Bazkalondoan, Kiki, Koko eta Moko pailazoen emanaldia eskaini zuten zineman.

Pilota jaialdi ikusgarria ere izan zen udal pilotalekuan. Hasteko, eskuz, Jabier eta Inaxio Errandonea anaiak, Minguez eta Gorritiren kontra aritu ziren. Eta akautzeko, herrian berean, herritarren arteko erremonte partidu ikusgarria antolatu zen: Koteto Ezkurra eta Lander Erkizia aritu ziren alde batetik, eta Xanti Uterga eta Iñaki Lizaso bertzetik.

LANA

Azaroan 562 langabetu Doneztebeko INEMen

Azaroan 562 lagunek emana zuten izena Doneztebeko INEMen, urrian baino 6 gehiagok. Nafarroan, aldiz, zertxobait beheiti egin du azaroan langabeziak, 20 pertsona guttiago baitaude lanik gabe, 17.646 guzira. Langabetuen adinari dagokionez, eskualdean 25 urtez beheitiko 51 gizaseme eta 41 emakume eta 25 urtez goitiko 181 gizon eta 289 emakume zeuden langabezia azaroan. Beraz, aitzineko hilabeteetan baino gizon gehiago eta emakume guttiago zeuden lanik gabe bi adin multzotan. Sektoreka, zerbitzu arloan zeuden langabetu gehienak, 330 pertsona, industrian 150, eraikuntzan 39 eta nekazaritzan 7, aitzinetik lanik egin gabeko 36 langabetuekin batera. Azaran 388 kontratu berri egin ziren eskualdean, baina horietatik 50 bertzerik ez ziren mugagabeak izan.



BELARRA

OSTATUA
JATETXEA

Amezia karrika
DONEZTEBE
Tfnoc: 948 45 03 06



Tel.: 948 456 080
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

APARAN, S. A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...



GOIZUETA

Erantzun ederra eman diete herritarrek azaroko ekitaldiei

San Andres eguna ospatu zuten beste urte batez eskolan

Esteban AROTZENA

Antolatzaileek inondik inora espero ez zuten arrakasta lortu dute azaroan egindako ekitaldiek. Kultur taldearen eskutik zetozen Juan Mari Beltran, Ansa ahizpak eta Pello Zabalak jende asko eraman zuten Ganbara aretora. Lehenengo biak ehun lagunetik goiti eta eguraldi gizonak 40-50 inguru. Gazte Asanbladaren 60. hamarkadaren festak berriz, afaltiarrez bete zuen elkarteak, aisa bukatu baitziren ehun txartelak. Azkenik esan, udalaren antolakuntzapean Ronadar taldeak Gaztetxean eskainitako

emanaldia ere hagitz arrakastatsua izan zela.

San Andres

San Andres eguna aitzakitzat hartuta festa ederra antolatu zen aurtengoa azaroaren 29an herriko eskolan. Ipuin kontalaria, Hernaniko eta Goizuetako bertso eskolako emanaldia... eta nola ez, ohiko bertso-paper lehiaketaren sari banaketa. Ondorengo hauek izan dira aurtengo irabazleak: Larraitx Salaberria, Uxua Huitzi, Leire Costas, Nerea Zabaleta, Juan Loiarde eta Iban Eskudero.




Jon Apezetxea txapeldun

Jon Apezetxea pilotari gazteak beste zapela bat gehitu dio dagoeneko oparoen bildumari. Oraingoan, Burlatako torneoa eskura-

tu du. Bi herritar zituen kontra gainera finalean, Jon Nabarte eta Mikel Eskudero, hain zuzen. Beste garaipen bat gehiago Angel Salaberriak zuzentzen duen pilota eskolarentzat.

ARANO



Suroko ur sarearen berritzea

Kontxi KLABER

1947. urtera arte erreka eta etxe ondoan zeuzkaten putzuetako urarekin moldatzen ziren. Urte horretan bizilagunek egin zuten ur sarea lehen aldiz, eskuz noski. Gerotik beste behin berritu da, baita ur deposito berria ere. Autotarrak egin dira hemengo uren arduradun orain artean, goiko puntatik hasi eta behoraino iritsi bitartean, baserritarrek banan banan pasa dituzte urte guzti hauek beren gain depositoa garbitu eta aberiaren bat egonez gero horren konponketa bideratuz. Orain udalak hartu du ardura eta goitik behera berrituko da sarea. Depositoa berritzea falta da bakarrik. Lan hau bukatutakoan zola berrituko da.

ARESO

Abenduaren 6an Euskararen Eguna ospatu zen

Guraso Elkarteak osatu da

Juana Mari SAIZAR

Abenduaren 6an Euskararen Eguna edo Neguko Festa ospatu zen. Eguraldia ez zen oso lagungarri izan aurtengoan, baina oztopo guztiak gaindituz, eskolako trinketean pilota partiduak, dantzari txikien emanaldia eta taloak osatu zuten goiza. Banabar gorrien presetaketa lehiaketa Mirari

Marzolek irabazi zuen eta bazkaltzeko aprobetxatu zuten janaria. Sustrai Kolina eta Angel Peñagarikano bertsolariak alaitu eta osatu zuten otordua. Arratsaldean, trikitixa lehiaketa eta txokolatada ondoren, bukaera eman zioten festari.

Guraso Elkarteak Guraso Elkarteko zu-



ARGAZKIA: DIARIO VASCO

Dantzari txikiak emanaldia eskaini zuten Euskararen Egunean.

zendaritza batzorde berria osatu da. Hauteskundeak abenduaren 2an egin ziren. Eskola Kontseilurako Joxepi Marzol aukeratu dute eta Guraso Elkarteko

Joxepi, Txaro, Marta eta Mikel.

Egur loteak

Egur loteak banatu ziren abenduaren 4an udaletxean.



Landibar

ZENTRO
KOMERTZIALA

DANTXARINEAko
Landibar eta
IBARDINGO **Venta Peion**

USAIN GOXOEN TXOKOA aurkituko duzu.
markarik ezagunenetan aukera zabala.

Zatoz eta ikusi!

Euskal Herriko preziorik hoberenak
Eguberri eta egun berezi hauetan
gustoko opariak egin eta jasotzeko.

☎ Dantxarinea (0034) 948 599 400
☎ Ibardin (0034) 948 630 719



LASTER BEHOBIAN ERE!

VENTA PEIO






Txirrista

Eguberrikako **DESKONTUAK**

Elizagibela, 2 • **DONEZTEBE** • 948 451 649



elizagibela 4 • **DONEZTEBE** • 948 45 04 09



Parrokia 11 • **DONEZTEBE**
Tfnoa: 948 45 01 12



Zerbitzu Informatikoak

- ♣ Ordenagailuen salmenta eta konponketa
- ♣ Web orriak
- ♣ Programak

Kanttonberri, 4 31780 **BERA**
Tfnoa.: 948 630673
E-Posta: biur@bortziri.com
http: www.bortziri.com



ZAPATADENDA • PAPERTEGIA • ESTANKOIA

Gizaseme, emakume eta
haurrendako oinetako
aukera zabala

Tel eta Faxa: 948 450 289
e-posta: costiz@teleline.es
Parrokia 17 • **DONEZTEBE**



ARKUPE
Boxotegi • kafetegia

Eguberri on!!

IRURITA • Tfnoa.: 948 452 021
ELIZONDO • Tfnoa.: 948 452 393



Promozioa

modelo guzitan



**Motozerra bat
erostean**
(zaharrak hartzen
dire kanbioan)
**5litro olio kateenda-
ko + kate bat
OPARI!!**

Kuadrak, traktoreak
harriek... garbitzeko makina.
PROMOZIOAN, modelo guz-
tietatik.

Santiago10, behea • **ELIZONDO**



ILEAPAINDEGI MIXTOA
EDERTZE-ARETOA

DIAGNOSTIKO KAPILARRAK:
erorketak, buruko zahi, koipea...

teknikariek egina
Lab. Prince (Paris)

kontsulta dohainik

Eguberri on!

Bidasoa 8, behea • 31780 **BERA**
Tfnoa: 948 63 01 77 (ordua eskatu)



Guria
DROGERIA
LURRINDENDA

Lurrinak, opariak, bisute -

Altzate, 37 • **BERA** • 948 630 388



EL DESVAY
Altzari rustiko
eta kolonialak • Opariak

Bidasoa, 4 • BERA • 948 630154



IPINGI

Arropa eta
konplementoak

**EGUBERRITAKO
ESKAITZA BEREZIA!!**

Oparietan **2x1**
bat erosi eta bertzea opari

Santiago, 88 • ELIZONDO • Tfnoa: 948 580 939



Ibarrola

Haurrendako arropa
0-14 urte

Parrokia, 6 • DONEZTEBE • 948 450 463

ARTURO

jantzienda
Etxeko arropa
Mertzeria

Abenduak 21, 28 eta ilbeltzak 4
larunbat arratsaldetan irekia
ilbeltzak 5
goizeko 10etatik 2tara irekia



Altzate, 20 • BERA • © 948 630136



Serapio
Mugika, 14
IRUN

Tfnoa:
948 61 58 86



moda premama

Mari

gmb
Grupo médico dental del Baztan

Urtarrilan **hartz klinika** berria
irekiko dugu Elizondon! (ikastola parean)

Eguberrin!!!

Odontologia

Periodontzia

Ortodontzia

Hartz-aginen estetika



Endodontzia

Inplanteak

Masail kirurjia

Haur odontologia

Larrode Anne Marie

Bordeleko Medikuntza Fakultatea
Bordeleko Hartz-haginen Eskola
Ortodontzian Goi Mailako Ikasketa Zientziak

Caplanne Jean Pierre

Bordeleko Medikuntza Fakultatea
Bordeleko Hartz-haginen Eskola

Larrieu Thierry

Bordeleko Medikuntza Fakultatea
Bordeleko Hartz-haginen Eskola



Amezitia

• Ostala • Jatetxea • Ostatua

Tfnoa: 948 450 028 • DONEZTEBE

Jatetxea

LARUNBAT GAUERA KO *menu berezia*

Entsalada

Fritoak

Txuletoia brasan edo

Legatz-kokotea

Etxeko postreak

Ogia - Ardoa - Kafea

Konbinatu bat dohainik

Prezioa: **16,50** B.E.Z a barne

NEGU KO *menu berezia*

Babarrunak

xingar, odolki eta bere osagaiekin

Entsalada

Txuletoia brasan edo

Legatza brasan

Etxeko postreak

Ogia - Ardoa - Kafea - Kopa

16,50 B.E.Z a barne



URTE ZAHARREKO **AFARIAK**

- *Urdai azpiko iberiarra tomatez eta olioz igurtzitako ogiarekin*
- *Foie patea landare bariazioekin eta Sagar purea ogi xigorrarekin*
- *Onddoz eta ganbaz betetako krepeak*
 - *Etxeko oilasko zopa*
- *Legatz-solomoak txipiroiekin eta txangurrozko saltsarekin*
 - *Solomotxoia foie-erara oporto saltsarekin*
 - *Kafe biskuita*
- *Ardoa "Gran Feudo Crianza 99 Bodegas Chivite"*
 - *Kafea, kopa eta puroa*
 - *Zoriontasun mahatsak eta sorpresazko poltsa*

Prezioa: **47** B.E.Z a barne

Erreserbak egiteko deitu: **948 45 19 02** • 948 45 00 28

Ostatua

**Asteburuetan etorri zaitez bokatak eta pintxoak dastatzera
TB digitalean futbol partiduak ikusten dituzun bitartean!!**

LEITZA

Eguberrietan haur-aisialdia

Euskara Zerbitzuak hiru begirale hartu eta tailerrak antolatu ditu haur eta gazteentzat

Mikel ILLARREGI

Azkeneko urte hauetan gertatu den bezala, eguberri hauetan ere, Leitza eta Aresoko Euskara Zerbitzuak haur eta gazteentzat tailerrak antolatu ditu. Hiru begirale izanen dira eta bertara hurbiltzen denari azalduko diete zein egun eta ordutan izanen dira alde aurretik onarturiko bi aste hauetako programazioa.

Marmarian berriz

